



40 URTEETAKO EMOZIOAK JAIALDI BATEAN

Bihar 19:00etan, Usabalen, Laskorain ikastolak jaialdi berezia egingo du 40. urteurrena dela eta »3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2007-11-30**

V.URTEA 1.301.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Oria Merkatarien Elkartea jaio da, erosketak herrian egitera bultzatzeko

VILLABONA Oraingoz herriko 52 dendari bildu ditu elkarteak; Eguberrietan zozketa antolatu dute

PROPOSAMENAK Aparkalekuak, argiak, segurtasuna, ... dituzte, 'Herria bizirik eta erosketak Villabonan' lelopean »4



Oria Merkatariei Elkartearen zuzendartiz batzordea, atzo eginiko aurkezpenarekin. IMANOL GARCIA

PILAR ESAIN MIKEL ZALAKAINEN ALARGUNA

«Gauzak oraindik oso gaizki daude, pauso batzuk eman diren arren»

VILLABONA Mikel Zalakain euskal presoak kartzelan hil zela 17 urte betetzen dira gaur eta etzi omenaldia egingo diote Belabietan »7



Agintariak inaugurazioan: ezker-eskuin, Jokin Bildarratz alkatea; Maite Etxaniz, Foru Diputatua; lurreamendiko ordezkariak eta Andoni Iturzaeta E.E.

lurreamendiko egokitze lanak amaitu dituzte

TOLOSA 147 plaza izango ditu egoitzak, orain arte baino 18 gutxiago; atzo egin zuten inaugurazioa »2

“Natura bezain eraginkorra”



**PEUGEOT 308
berria**



TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxe: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com





Atzoko inaugurazio ekitaldian: ezker-eskuin, Heleba Basagoiti, Jokin Bildarratz eta Maite Etxaniz. ESTI EZEIZA

Amaitu dituzte lurreamendi egoitzako egokitze lanak

Hirigintza » Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia; gauzatuak aldaketan ondorioz plaza kopurua jaitxi egin da; 165etik 147ra

ESTI EZEIZA

Amaitu dituzte lurreamendi Zaharren egoitzaren egokitze lanak. Hori dela-eta Gizarte Politikako Foru Diputatua den Maite Etxaniz izan zen atzo egoitza eraberrituan, Jokin Bildarratz, Tolosako alkate-ekin eta hainbat Udal ordezkari-ekin batera.

Eraberritze lanen ostean, 147 plazarekin geratu da egoitza, hau da, lehen zituenak baino 18 gutxiago. Egungo kopuruaren arabera, banakako gelak 39 izango dira eta 54 bikoitzak. Honekin batera, gimnasio eta unitate psikogeriatriko berriak, banakako logela eta bisita gela berriak, komunak eta zeramikazko teilak berria du jada.

Atzoko inaugurazio ekitaldian, Maite Etxaniz, Jokin Bildarratz eta Helena Basagoiti, lehendabizi adinekoengana zuzendu ziren hitz batzuk esateko. Hemen, alkatetik, lehenik eta behin, Aldundiaren parte-hartzea eskertu zuen. Azaldu zuen ere, Menpekotasun Legearen ondorioz, etapa berri bat datorrela, behar berriekin. Eta hauei, administrazioak erantzun egin behar diela gaineratu zuen. Maite Etxanizek, gazteek adinekoenganako dugun zorra azpimarratu zuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beraien bizi kalitatea hobetzeko hartu duen konpromisoa adierazi. Helena Basagoiti, egoitzako ordezkariak, eraikina nola geratu zen erakutsi zien gonbidatuak.

Egoitzako lanen hastapenak
Lurreamendi egoitzaren eraikinak 12.000 m2 erabilgarri ditu, lau solairutan banatuta. 1920. urtean eraiki zen eta 1983-1986 urte bitartean erreformabatuz eman ziren. 2004. urtean lurreamendi egoitzan indarrean zegoen arautegira egokitzeko lanen lehen fasea burutu zuten. Urte bat beranduago, hau da, 2005ean, bigarrenari ekin zioten. Azkenik, bukatutzat eman dituzte aldaketa guztiak.

Burututako aldaketak

Beheko solairuan, gimnasioa dagoen lekua egokitu dute, eskatutako azalera gutxienekoa lortzeko. Bestalde, geletako komunetako banatze-hormak kendu dituzte, egoiliarrek arazo gutxiago izan dezaten komunak erabiltzerakoan. Helburu hori bera betetzeko, komun orokorretan ere aldaketak egin dituzte.

Lehendabiziko solairuan, behekoan egindakoan antzeko aldaketak gauzatu dituzte. Geletan, hauen komunetan, nahiz komun

orokorretan. Senar-emazteentzako geletan berriz, komunetako banatze-hormak kendu dituzte.

Aldaketa handienak bigarren solairuan egin dira. Hemen, indarrean dagoen araudia betetzeko, ekialdeko eta mendebaldeko hegalatan, unitate psikogeriatrikoak ipini dituzte. Honez gain, hementik aurrera, pasabideak itxitura jarraitua du, 1,80 metroko gutxieneko zabalera lortzeko. Bestetik, iparraldeko fatxadaren 15 gela egin dituzte, hauek banakakoak dira. Bakoitzak bere komuna du, eta ekialdeko eta mendebaldeko muturretan bisita gela bana.

Azkenik, lehen zegoen uralitza-ko estalkia kendu eta zeramikazko teilak jarri dute.

Finantzaketa

2004an hasitako lanen eta duela egun gutxi bukatu diren gastu orokorra 3.227.749 milioi eurotako izan da. Hemendik %75a Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindu du, eta gainontzekoa Tolosako Udalak.



Helena Basagoiti egotza erakutsi zien alkateari eta Foru Diputatuari. E. EZEIZA

LABek manifestaziora deitu du biharko, lan istripuak salatzen

Gizartea » Aurten, 107 langile hil dira jada, lan istripuz Euskal Herrian; hau «denon arazoa dela dio» sindikatu abertzaleak

ERREDAKZIOA

2007. urtea amaitzeko hilabetetik gora geratzen den honetan, 107 pertsona hil dira jada lan istripuz, Euskal Herrian. Hala, azken urteetan heriotza kopurua igo egin dela.

LAB sindikatuaren esanetan, «heriotza gehienak lan egoera eta

baldintza prekarioen, azpikontratazioaren, lan erritmoen eta beste hainbat antzerko egoeraren ondorio zuzena dira». Hala, hau guztia ez dela zerbait normala baieztatuta dute sindikatu abertzalekoek, eta ekidin daitekeela, «nahiz eta kontrako sinestrazi nahi duguten».

«Arazo sozial latza delako eta denoi eragiten digulako», mobilizatzaera deitu du LABek biharko. 17:30ean manifestazioa egingo da Donostian, Bulebarretik abiatuta, *Lan istripurik ez! Prekarietateak eta azpikontratazioak hil egiten dute* lelopean.

Eskualdeko herriak Agenda 21 bultzatuz

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko udalerrietako Tokiko Agenda 21 programaren jarraipena sinatu zuten atzo Aldundiarekin. Ekimenarekin, Garapen Iraunkorrenko Departamentuak eta Tolosaldeko zazpi herri nahi dutena da, horietako bakoitzak bere Tokiko Agenda 21 programaren jarraipena egitea eta tokiko ekintza planak bultzatzea. Sinadura ekital-

dian ordezkari hauek izan ziren: Carlos Ormazabal, Garapen Iraunkorrenko diputatua; eta Tolosa, Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkilgo alkateak.

Ormazabalek gogorarazi zuen, udalerririk horiek eta foru erakundea 2004az geroztik elkarlanean aritu direla agenda 21 proiektuak bideratzen. Izan ere, Ernioaldea Udaltaldea eratu zuten orduan.

Parentesiak noiznahi



» Kale kantoitik

Joxemi Saizar

Santa Zezilia omendu zuten musikariaren eskutik iritsi dira duel egun gutxi txotxongiloak Tolosara. Tolosarrak berehala bereizten ditugu txotxongilo mundukoak. Ez dakit janzkeragatik, duten ukitu bohemiogatik, begirada galduagatik... den, baina segituan konturatzen gara, nahiz eta garai bateko karromatoa ez ekarri bere panpinekin. 25 urte ez dira alferrik pasatzen. Eta horien artean tolosarrak ere etorri zaizkigu, Galizian bizi eta lan egiten duten Urruzola ahizpak. Hemen bertan txotxongilolaririk ez dugu (Asvinenakoek tarteka ateratzen dituzte), beraz gure ordezkariak urrutitik ekarri behar.

Eta trapuzko izaki txiki hauen etorrerarekin herri osoa transformatu egiten da. Ez bakarrik herri-tarrak. Zuhaitzek ere soineko dotoreenak jantzen dituzte okasiorako: horiztak, gorritzak, okreak, berdeak... Batzuk ez, batzuk biluzik uzten dituzte propio egun hauetarako, udal langileen konplizitatearekin. San Frantzisko pasealekukoak. Bertan zintzilikatzen dituzte partxis koloreko txotxongiloak ikus ahal izateko izango da. Edo han goitik ondoan duten Liburu Azokako nobedadek gainbegiratzeko aukera izan dezaten. Herriartarat egun bereziak izaten dira. Urte osoko egunerokotasunean parentesia egin eta harietatik zintzilikatutako mundu magikoan murgiltzen gara. Parkeek, dendariak, tabernariak, ere nabari dute eragina. Kaleak egunero beste herrietako haurrez betetzen dira eta herria urtero nola aldatzen, hobetzen ari den konprobatzen dute.

Eta txotxongiloen eskutik txuleta-azalek iritsiko dira. Eta hauen eskutik Olentzero... Eta gero...

Laskorainen 40 urteetako emozioen jaialdia bihar, Usabalen

Hezkuntza » Ikastolaren 40. urteurrena dela-eta, antolatu dute jaialdia; herritar guztiei irekia da, eta 19:00etan hasiko da.

IÑIGO TERRADILLOS

Laskorain ikastolak 40 urte betetzen ditu aurten, eta bere ibilbidea eszenaratuko duen *40 emozio urte XL Laskorain Ikastola. Jaialdi berezia* prestatu dute biharko. Usabal kiroldegian, 19:00etan hasiko da emanaldia, eta bertan, sorrera garaian euskararen egoera zein zen Tolosan, administrazioarekin zituzten harreman zailak, urteetako bilakaeran izan diren zenbait gertaera eta une gogoangarriak, gaur egun adierazgarriak direnak eta etorkizunari begira izango diren eronkak azalduko dituzte besteak beste.

Antzerkia, musika, dantza...

Hau guztia, adierazpen artistikoak eta era guztietako emozioak elkarren artean nahasiz egingo dute; izan ere, antzezpena, ikus-entzunezkoak, musika eta dantza



Jon Ander eta Imanol Ubeda ariko dira biharko jaialdian. I. ETXEBESTE

«modu alaian nahiz garratzen, hunkigarrian nahiz barregarrian» izango dira ikusgai. Horretarako partaide ugari pasaraziko dituzte oholtzatik edota pantailatik, hala nola, gaur egungo nahiz iraganeko ikasle, guraso eta langileak.

«Laskorain Ikastolak Tolosako hezkuntzan eta euskalgintzan 40 urte hauetan egin duen historia ahalbide duen herriari erakutsi diezaiogun», emanaldia ikastolako kideentzat ez ezik Tolosari eskainia eta herritarrentzat irekia izango da ere. Jaialdira joateko txartelak ikastolako idazkaritzetan, Kilometroak 2008ko dendan

» ZENBAIT DATU

- **Jaialdia.** 40 emozio urte XL Laskorain Ikastola Jaialdi berezia.
- **Eguna eta ordua.** Bihar, 19:00etan.
- **Lekua.** Usabal kiroldegian.
- **Ekitaldia.** 40 urte hauetako historia kontatuko dute, eta antzerkia, musika eta dantzaz gozatzeko aukera izango da.

eta Raku, Orbela eta Ikatz tabernetan daude salgai 6 euroren truke (3 euro ikasleentzat).

Artista ugari taula gainean

Musikak pisu handia izango du, eta Juantxo Zeberio, Jon Arruebarrena eta Josu Gabellanes Laskorain abesbatza eta Ikastolako txaranga, Jon Ander eta Imanol Ubeda, Jone abeslaria eta Idoia Iraola abeslaria ariko dira, eta gonbidatu berezia Oskorriko Natxo de Felipe izango da. Erik Probanza eta Asier Unsain aktoreak eta Katixa Perearen dantza taldea ere taula gainean ikusteko aukera izango da.

«Urte hauetan sorrerako zutabeak mantendu ditugu»

JONE URTEAGA » Laskorain ikastolako zuzendaria

I. TERRADILLOS

Laskorain ikastolako zuzendaria da Jone Urteaga (Tolosa, 1958). Bigarren urtea du aurtengoa zuzendari bezala. Duela 27 urte hasi zen Tolosako ikastolan lanean irakasle bezala.

Nola gogoratzen duzu ikastolan sartu zineneko garaia?

Kilometroak 80ko urtean sartu nintzen. Laskorain ikastolaren lehendabiziko Kilometroak izan zen. Garaiahartan *txabolak* bazeuden, eta Gorosabel zaharrea eta Pablo Gorosabelen geunden baita ere.

Ia ikastolaren sorreratik zaude bertan. 40 urte luze pasa dira. Gauza asko aldatuko ziren.

Gaur egungo ikastolak eta nik hasi nintzen garaian ezagutu nuenak oinarriko zutabe berdinak dituzte. Euskara eta euskal kultura bate-tik, eta bestetik, berrikuntza pedagogikoa. Bi zutabe horiek mantendu egin direla nabarmenduko nuke.

40 urteengatik jaialdi berezia antolatu duzue bihar. Zein helbururekin?

Elkarbiltzea. Urte hauetan ikastolaren alde lan egin dugun irakasle, guraso, ikasle, sortzaileak... bildu nahi ditugu. Guztiok egin dugun



HITZA

lana elkarri aitortzea, eta elkarrekin, harro gaudela aitortzeko unea izango da. Aurrera jarraitzeko ke-mena, indarra eta ilusioa dugula aitortzeko unea ere izango da. Emozioak agerian jartzea eta guztion arteko lotura lortzea gustatuko litzaike.

Jaialdia herri guztia irekia da.

Bai. Izan ere, herri ekimenez sortu zen ikastola duela 40 urte, beraz, zor handia dugu herriarekin. Hala, Tolosari itzuli nahiko genioke dugun zorra. Horregatik dago herri osoa, edo herritar guztiak gonbidatuta.

«Bertakoen eta etorkinen arteko errespetua sendotzea lortu nahi dugu ekimen honekin»

RITA CALDERON » Ereite elkarteko kidea

Gizartea » Euskararen Eguna antolatu du datorren astelehenean eta asteazkenean Ereite elkarte multikulturalak

I. TERRADILLOS

Ereite elkarte multikulturalak datorren astelehenean, abenduaren 3an, hau da, Euskararen Egunean, *Nik ere euskaraz* lelopean ekitaldiak antolatu ditu. Astelehenean antzerkia eta hitzaldi-etzabaida izango dira, eta asteazkenean, berriaz, afaria sagardotegian. Rita Calderon perutarra elkarteko kidea da.

Euskararen Eguna antolatu duzue Tolosan. Zein helbururekin?

Euskara traba bezalabaino, etorkinen artean integrazioa bultzatzen duen tresna bezala ikusi eta ikusarazi nahi dugu, aberasgarria irudi-



I. TERRADILLOS

tzen zaigu. Datorren asteak bezalako ekitaldiekin euskal kultura, eta, bereziki, euskara errespetatzen ditugula erakutsi nahi dugu. Kulturen arteko elkartruke izatea nahi dugu, baina kasu honetan euskal kultura oinarri hartuta.

Euskararena aspalditik hasi zintzen lantzen.

Bai. Murgilduz proiektuaren baitan ari gara, eta honen helburua etorkinen artean euskara ikastea bultzatzea da, modu horretan gizar-tean integratzea errazagoa dela

uste baitugu. Bigarren helburua, etorkinen arteko babesa izango den sarea bultzatzea da. Modu honetan integraturik dauden etorkinek iritsi berriei lagundu ahal diegu. Euskara eskolak antolatzen ditugu larunbatetan, irteerak egiten ditugu euskal kulturaz gehiago ikasteko, eta aurten Korrikan ere parte hartu dugu. Ikasle ugari hartu zuten parte hemen, eta asko gustatu zitzaion.

Nolako egitaraua antolatu duzue?

Datorren astelehenean, abenduaren 3an bi ekitaldi izango dira. Batetik, Zenbat gara antzerki taldearen *Hamaika koloretan dantzan* antzezlana izango da Leidorren, 17:30ean, doan. Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Euskal Herriko haurren maskotak dira. Behin Kantauri itzaratik heldu ziren eta bertako umeak ezagutu ondoren haiekin bizitzen gelditzea erabaki

zuten. Anaitasunaren gaia lantzen dute antzezlana honekin. Honen ostean, 19:30ean, Kultur Etxean, hitzaldi-etzabaida izango da; Xabier Aierdi hizkuntza dibertsitate berriaren eraginaz hizkuntza gutxituengan ariko da, eta Joseba Antxustegietxarte hizkuntzaren sentimenez. Bestalde, asteazkenean, abenduaren 5ean, afaria antolatu dugu Uzturre sagardotegian. Honen helburua Euskal Herriko ohiturak ezagutu eta euskararen eguna modu dibertigarrian ospatzea da. Pentsa, kantu liburuak ere banatuko ditugu euskal kantak abesteko. Gainera, euskal musika ere izango dugu. Ikatza eta Triangulo tabernetan eta Galtzaundin daude txartelak salgai.

Nori zuzenduak daude ekitaldi hauek?

Eskualde osoari daude zuzenduta ekitaldiok. Irekiak dira, eta guztion parte-hartzea da bultzatu nahi duguna. Gure asmoa elkartrukea egotea da, ahalik eta jende gehien biltzea bertan. Gure asmoa herriari antolatzen diren bezalako beste ekitaldi bat izatea da antolatu duguna. Bertakoen eta etorkinen artean elkarren arteko errespetua da bultzatu nahi duguna ekimen honenkin.

L Laburrak**Bozka emateko aukera etzi herrian ez daudenentzat**

ANOETA ■ Etzi Anoetan AHTren inguruko herri galdeketa egingo dute. Egun horretan egon ezin duten herritarrek ere bozkatzeko aukera izango dute. Horretarako agiri bat bete beharko dute euren bozka uzteko ahalmena beste pertsona bati aitortuz. Agiri hori 656 75 76 56 zenbakira deituz lor daiteke.

Obrak egingo dituzte Elduarako bidegurutzean

BERASTEGI ■ Foru Aldundiak GI-2130 errepidetik Berastegiko El-dua auzora joateko «bidegurutzea hobetuko du». Aurrekontua 375.501,13 eurokoa da eta lanak egiteko epea hiru hilabetekoa. Proiektuaren bitartez T formako bidegurutzea eraldatuko du, Berrobiatik GI-3221 errepidera sartzeko «mugimenduak hobetzeko asmoz». Proiektutako irtenbidearen helburua da orain dagoen bidegurutzea aldatu eta irlatxo zolatuen bidez bideratutako bidegurutze bihurtzea, eta horretarako zabaldu egin beharko dute oraingo errepidea.

Udalak Gurasoen Arteko Topaketak antolatatu ditu

VILLABONA ■ Udalak Gurasoen Arteko Topaketak antolatatu ditu. Bi ikastaro egingo dituzte, bata 0-10 urte bitarteko haurren gurasoentzat eta bestea 11 urtetik gorako haurren gurasoentzat. Izena emateko epea zabalik dago abenduaren 14a arte. Interesatuak 943 69 39 25 zenbakira deitu behar dute.

Seaska Haurreskola ikusteko aukera, bihar

VILLABONA ■ Bihar Seaska Haurreskolaren egoitza berriaren inaugurazioa egingo dute. Ekitaldien baitan, 12:00etatik aurrera herritarrek Seaska Haurreskola ikusteko aukera izango dute.

G Gutunak**Anoetarron garaia!**

Oztopoak jarri dizkiguten arren Anoetarrok izango dugu AHTren inguruan dugun iritzia emateko aukera. Hainbat urtetan eta bereziki azken hilabetetan AHT Gelditu! Elkarlanak eragile ezberdinen laguntzarekin egindako lanari esker gaude aukera honen aurrean. Informazioa ezkutatu egin diote herriari. Bai baitakite informazioa jaso den herrietan proiektuaren aurkako jarrera biderkatu egin dela.

Abenduaren 2ko galdeketa inguruan eman den informazioa eta

eztabaida prozesua amaitu da. Salagarria da bai Aldundiak baita Eusko Jaurlaritzak ere izan duten jarrera. Hasieran gure gonbitea onartu bazuten ere gerora iritzia aldatu eta ez etortzea erabaki zuten. Beraiek ez dute eztabaidatu nahi, inposatu egiten dute.

Kontutan izaten badugu 10.000 milioi eurotik gorako aurrekontua izango duela eta kopuru horretatik zenbait alderdik lortuko duen etekina ezinbestekoa dutela daukaten estatusa mantentzeko, argi eta garbi ikusten dugu proiektu honen atzean interes ekonomikoak daukela.

Anoetan igandean egingo dena ohikoa izan beharko lukeen ariketa demokratikoa da. Ezinbestekoa beharko luke, gure herriaren ingurumena, lurralde antolaketa, ekonomia... baldintzatuko dituen horrelako proiektu baten aurrean.

Nola esan dezakete gizarte proiektuaren alde dagoela, biztanlearen hiru laurdenak ez duela informaziorik salatzen bado? Nola dakite, ez badigute gure iritzia ematen uzten?

Anoetan ez dugu aukera galduko. Ez esango diogu inposaketari. Ez esango diogu txikiziori. Ez esango diogu AHTri.

Igandean ez da ezer amaituko. Abenduan 2an emango dugun ezetza AHT proiektua erabat gelditu arte emango den borrokaren barruan beste urrats garrantzitsu bat izango da.

Beraz anoetar guztioi luzatzen dizuegu, gaiak duen garrantziaz jabetu eta abenduaren 2an AHT ez bozkatzeraz joatekoaz gain, abenduaren 1ean, larunbatean, arratsaldeko bostetan egingo den manifestazioan parte hartzeko deia.

Abenduaren 2an inposaketari ez! AHTri ez!

Egoitz Luisa. Anoetako ezker abertzalearen izenean

Oria Merkatarien Elkarteak sortu dute, erosketak herrian egitea bultzatzeko

Villabona ■ 52 dendarik parte hartzen dute oraingoz elkarteak; Gabonei begira zozketa antolatatu dute.

IMANOL GARCIA

Oria Merkatarien Elkarteak sortu dute Villabonako 52 dendarik eta zuzendaritza batzordeak atzo egin zuen aurkezpen ekitaldia. *Herria bizirik eta erosketak Villabonan* da aukeratu duten leloa. Proposamenak ere mahai gainean dituzte hainbat gairen inguruan: aparkalekuak, argiak, segurtasuna, sarbideak, merkataritzarako zingotzi bat edo behintzat Udalarekin harreman zuzena izateko pertsona bat eta garbitasuna.

Udalarekin «harreman ona» dutela azaldu zuten eta abendu guztian Errebote plaza aparkaleku gisa erabiltzeko proposamena egin diote. «Ez dugu lortu hilabete



Oria Merkatarien Elkarteak zuzendaritza batzordea, zozketarako sari bezala jarri duten saskiaren ondoan. Caja Rural banketxeak Kale Berrian duen egoitzan dago saskia ikusgai. I. GARCIA

guztirako izatea, baina bai abenduaren 22tik urtarrilaren 6a bitartek, 09:00etatik 14:00etara».

Saskia sarritan

Gabonei begira zozketa antolatatu dute, hiru sarirekin. Lehenengoak saski bat jasoko du, bigarrenak asteberu bat bi lagunentzako lan-detxe batean eta hirugarrenak Olarreaga-Goiko jatetxean afaria bi lagunentzako.

Oraingoz Kale Berri, Kale Naguena eta Santiago kaleko dendariak daude elkarteak. «Proposamena ez zaie luzatu Villabonako dendari guztiei», azaldu dute Oria elkarteak, «batik bat lan gehiegirikusten genuelako. Aurretik elkarteak sartuta gaudenak bagenuen harreman bat Gabonetako argiak jartzeko eskaria egin genion Udalari. Datorren urtearen hasieran denekin harremanetan jartzeko asmoa

dugu». Etorrizunean ere Zizurkilgo dendek elkarteak sartzeko atek irekita dituzte.

Osatu duten zuzendaritza batzordea borondatezkoa da. Mari Carmen Iztueta da lehendakaria, Mari Jose Irazusta lehendakirordea, Alberto Cid idazkaria, Idoia Irastorza diruzaina eta bolakak Ana Casamayor, Eduardo Soto, Eneritz Altuna eta Juanjo Villena dira.

» ORIA MERKATARIEN ELKARTEKO KIDEA

- **Ardotegiak.** Aranburu.
- **Elektrizitatea.** Soto.
- **Optikak.** Bronte eta Villabona.
- **Liburudendak.** Basajaun, Kaze-taria eta Papertxulo.
- **Autoeskolak.** Bengoetxea.
- **Gestoriak.** Mendiluze eta Lertxundi.
- **Inprentak.** Tinta eta Oria
- **Kirolak.** Albizu
- **Zapata dendak.** Izaskun.
- **Ileapaindegiak.** Xarmant eta Felix.
- **Mertzeriak.** Garintza.

- **Zapaten konponketak.** Azkar.
- **Burdindegiak.** Gorostidi.
- **Elkarteak.** Iratza.
- **Belardendak.** Sahatsa.
- **Gozotegiak.** Lider.
- **Janari dendak.** Pepi, Maite eta La Huerta.
- **Ostalaritza.** Obaba, Beretz, Itzalpe, Amasa eta Irish Pub.
- **Jantzi eta osagarrien dendak.** Ane, Idoia, Kux-Kux, Lur, Galerías MJ, Amaiur, M.P. eta Lakunza.
- **Okindegiak.** Ogi-Goxo eta Labezain.

- **Aluminioak.** Ernio.
- **Konponketak.** Amaia eta Begoña.
- **Tabako-dendak.** Estanco Villabona.
- **Harategiak.** Musturienea eta Brontxillo.
- **Higiezinen agentziak.** Etxesagasti.
- **Argazki-dendak.** Martin eta Naiara.
- **Imitaziozko bitxi-dendak.** Guanabana.
- **Loredendak.** Gema.

G **P** **N** **T** **U** **A**

Abenduak 1, larunbata

ORDIZIA, Majori Koroledgia

18:00

Aitor Sarriegi Unai Muñoz
Aitor Mendiluze Jose Munduate
Iñaki Zelaia Iñaki Gurrutxaga

www.gpantua.com

hitza

Xurdinen abentura berrien Nafarroako estreinaldia bihar, Leitzan

Leitza » 'Xurdin eta gorringo lakuaren misterioa' obraren bi emanaldi eskainiko dituzte zinema aretoan.

ERREDAKZIOA

Sointek ekoizpen etxe tolosarrak Xurdin pertsonaiaren bigarren antzezlan estreinatuko du bihar Nafarroan. Hain zuzen, Leitzan izango da estreinaldi hori eta bi emanaldi egingo dituzte zinema aretoan, 16:30ean eta 18:30ean. 5 euro balioko ditu sarrerak.

Lehenengo antzezlanaren arrakastaren ondoren, Sointek etxekoek *Xurdin eta gorringo lakuaren misterioa* obra sortu dute. Gipuzkoan egin dute dagoeneko estreinaldia, Errenterian, eta urtarilean Tolosan eskainiko dute.

«Akzio gehiago»

Bereziki haurrei zuzendutako emanaldia da Xurdin eta bere lagun abenturak. Bigarren lan honetan «akzio gehiago dago eta istorioa azko dinamikoagoa da», Sointekoek azaltzen dutenez. Xurdinen abentura berriak biltzen duen obra umeentzako oso erakargarria izango dela uste dute ere.

Basoa eta bertan bizi diren animalia eta pertsona guztiak deuseztatu nahi dituen sorgin maltzur baten istorioa kontatzen du obra berri horrek.

Zurea da hitza



Belauntzako jatetxean gazteei zuzendutako afaria, bihar

Gizartea » 20:00etan izango da eta 25 euro ordainduren truke; aurretik txalapartarien saioa izango da.

BELAUNTZAKO JATETXEA

Belauntza jatetxean datorren larunbatean 20:00etan afari berri bat egingo dugu: gazteei zuzendutakoa da eta 25 euro balioko du. Prezioa ekonomikoa da, menuan zer dagoen jakin ondoren. Interesatuak eta erreserbak egiteko deitu telefono honetara: 943 67 09 28. Edozein herritar dago gonbidatuta. Aurretik txalapartariak izango dira. Anima zaitetz!

Landarbaso abesbatzarekin ekingo diote kultur egitarauari

Villabona » Gazte nahiz helduentzako zinema, antzerkia, kontzertuak,... antolatu ditu Udalak abendurako.

ERREDAKZIOA

Urteko azken hilabetea ekitaldiz blai helduko da Villabonara, Udalak kurtur jarduera ugari antolatu baititu helduentzako zein gaztetxentzako. Hala, antzerkiak, kontzertuak, zinema, ikastaroak,... izango dira.

Hain zuzen, bihar ekingo diote hilabeteko egitarauari, Errenteriko Landarbaso abesbatzak eskainiko duen emanaldiarekin. 20:00etan izango da Jesusen Bihotza parrokiaren. Inaki Tolarengatik zuzentzen duen abesbatzak 45 minutuko saioa egingo du entzuleen aurrean, zortzi kantuz osatuta; horietako bat, gainera David Azurza tolosarraren abesti bat.

Zinema familia guztiarentzat

Helduentzako zein gazteentzako kartelera zabala izango da asteburero. Helduen saioak 22:30ean larunbatean eta 19:30ean igandean izango dira, 4,5 euroren truke eta asteleheneko saioak 21:30ean izango dira, berriz, 3 euroren truke (ikuslearen eguna). Gazteen kasuan, larunbateko emanaldiak 18:00etan hasiko dira eta igandekoak 17:00etan, bietan ere 3 euroren truke.

Javier Muguruzaren kontzertua

Musika emanaldien baitan, kontzertu berezia izango da abenduaren 14an, ostiralarekin. Javier Muguruza abeslari ezagunak Villabona bisitatuko du eta saioa eskainiko du Gurea antzokian. Sarrerak salgai jarriko dituzte aurrez herriko tabernetan, bost euroren truke. Egunean bertan erosiz gero zazpi euro balioko du sarrerak, lehiatilan bertan.

» ABENDUKO EGITARAUA

Helduentzako aukera Zinema.

- *Promesas del este* (bihar, etzi eta abenduak 3).
- *Conversaciones con mi jardinero* (abenduak 8, 9, 10),
- *Leones por corderos* (abenduak 15, 16, 17)
- *Michael Clayton*, (abenduak 22, 23)
- *Adios pequeña Adios*. (abenduak 28, 29, 30).

Antzerkia.

Abenduaren 21ean, 22:00etan, Hortz mugatutako *Eva vs Eva*, Gurea aretoan. Prezioa, 8 euro (6 euro Gazte Txartelarekin).

Kontzertuak.

- Landarbaso abesbatzaren emanaldia, bihar, 20:00etan, Jesusen Bihotza parrokiaren.
 - Jabier Muguruzaren kontzertua, abenduaren 14an, 22:30ean Gurea antzokian. Sarrerak, alde aurretik, 5 euro (herriko tabernetan) eta lehiatilan 7 euro.
 - Organo kontzertua, abenduak 15, 19:45ean, Jesusen Bihotza parrokiaren.
 - Abenduaren 19an, 17:30ean, Loatzo Musika Eskolako Gabonetako emanaldia, Gurea aretoan.
- ### Hitzaldiak.
- Abenduaren 12an, 20:00etan, udaletxeko balioanitzeko gelan, Emeterio Sorazuren, *Neguko solstizioko ohiturak gure artean*.

■ Abenduaren 17an, udaletxeko balio anitzeko gelan, Aritza taldearen historia ikastaroko bigarren saioa: *El enfrentamiento abierto entre España y Navarra*.

Ikastaroak.

Sukaldaritza ikastaroa. Abenduaren 11, 13 eta 18an Zumbeltz elkar-teaan, 17:30etik 19:00etara. Amasako Iturri-Goxo jatetxeko Jokin Zabala sukaldariak emango du ikastaroa (izen-ematea, abenduaren 10a bitarte udaletxeko kultura saileko bulegoan edo 943 691655 telefono zenbakian).

Gazteentzako aukera Zinema.

- *Los cuatro fantasticos* (bihar eta etzi)
 - *Shrek 3* (abenduak 8, 9)
 - *Stardust* (abenduak 15, 16)
 - *Betizu eta urrezko zintzarria* (abenduak 22, 23)
 - *Encantada* (abenduak 29, 30)
- ### Antzerkia.
- Abenduaren 26an, asteazkenarekin, Txalo taldearen *Magia teatuetan*, 17:00etan, Gurea aretoan.
- ### Bestelakoak.
- Abenduaren 24ean, 18:00etan olentzerori ongi etorria, Otsabitik. 19:00etan, Amasako plazan.

Barriola «gustura» finalerako aukeratutako materialarekin

Leitza » Titinek leitzarrak baino pilota arinagoak hautatu zituen atzo Gasteizko Ogeta pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Lau 1. erdiko finalerako materiala aukeratu zuten atzo bi finalistek Gasteizko Ogeta pilotalekuan. Bi pilotariak «gustura» azaldu ziren materialarekin eta «aitzakiarik ez» dutela aitortu zuten. Titinek Abel Barriolak baino pilota arinagoak hautatu ditu Titinek (103,4 eta 103 gramokoak; Cipri etxekoak). Leitzakoarenak indartsuagoak dira, botera jokatzeke (105 eta 105,2 gramokoak, Pumpakoak).

Martin Alustiza izan zuen laguntzaile Barriolak aukeraketan eta Joaquin Plaza, berriz, Titinek. Berrehun agun inguru bildu zen atzo Ogetan. Hantxe jokatuko dute finala igande arratsaldean eta jakitera eman dutenez, sarrera guztiak saldu dituzte dagoeneko. Pilota ikuskizuna, beraz, ziurtatuta dago.

Lau 1. erdiko ligaxkan 22-18 irabazi zion Barriolak Titini duela hi-

labete eskas, baina finala beti «desberdina» dela azpimarratu du leitzarrak. «Unea bera, pilotak, frontoia... Dena izango da desberdina. Beraz, ez da kontuan hartu behar ligaxkako emaitza», azpimarratu du.

Barriola «ongi» dago

Abel Barriolak «ondo» dagoela aitortu zuten material aukeraketa egin ostean, «bai esku aldetik, bai fisikoki»; hala ere «ezinezona» agertu zuen, «Titin oso aurkari arriskutsua delako. Txapelketan goraka joan da, gainera». Halaber, aita hil izana Titinentzat onena ez dela dio. «Dena den, dena eman beharko dut irabazteko».

Ezbeharrak Titinentzat

Aitaren heriotza dela-eta (igandean zendu zen, bihotzekoak eman da), Titinek ez du aste guztian ta-

xuz entrenatzerik izan, eta atzoko pilota aukeraketa baliatu zuen entrenamendu on bakarra egiteko. «Hala ere, burutik ez zait pasatu finala atzeratzea eskatzea. Etxekoekin, Plazarekin eta enpresarekin hitz egin dut horretaz. Lan asko egin dut hona iristeko, eta aitari gustatuko litzaioke nik finala jokatzea igande honetan. Hala egingo dut», esan zuen Titinek.

12.000 euro Abel Barriolaren alde

Tolosako Kantabriko tabernan bildu ziren pilotazaleek Abel Barriolaren alde egin dute apustu. Titinek Ogetako Lau 1. erdiko finalerako. Besteak beste, leitzar batek 12.000 euroko apustua egin du bere herrikidearen alde. Igandera arte itxaron beharko dugu, beraz, txapelak zein buru jantzioko duen jakiteko.

Zizurkilen ostalaritzan lan egiteko jendea behar da.

Interesatuak dei dezala 606 815 000 zenbakira.

Amezketako Zazpi-Isturriko hiru maila finaleratik hurbil daude

ERREDAKZIOA

Gaur Zazpi-Isturriren hiru partida izango dira probintzialaren baitan. 21:00etan hasiko dira pilotalekuan. Binaka jubenilak Belokirenen aurka; binaka nagusiak Añogaren kontra eta banaka nagusien artekoan Zazpi-Isturrikoak dira bi jokalariek. Jubenilak final-laurdenetan ariko dira nahiz eta galdut; nagusiak, berriz, finalerdietarako, eta eskuz banakako bietako bat Euskadiko ligan ariko da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldari eta zerbitzaria.** Sagar-dotegirako, sukaldari eta zerbitzari lanerako pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 660 654317 zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Adunan, 70 m²ko etxebizitza. 25 m²ko atikoarekin. Interesatuak deitu 608 575900ra.

Laburrak

Txontxongilo emanaldia etzi 11:30ean

IBARRA Benito Izagirre kultur etxean txontxongilo ikuskizuna egongo da etzi 11:30ean. Tolosako Txontxongiloen Nazioarteko Jaialdiaren 25. edizioan parte hartuko duen Victor Antonov-en konpainiak eskainiko du ikuskizuna. Talde errusiarraren *El Circo de los hilos* antzezlana ikusteko aukera izango dute igandean Ibarako Kultur Etxera gerturatzen direnek.

Kultur Truke Hamabostaldiaren agurra

IBARRA Kultur Truke Hamabostaldia amaitzeko aurkitzen den honetan, azken ekitaldia gaur egingo dute. Ibarako Sendi Ekintza Elkarrean, helburu horrekin agurreko ekitaldia egingo da 19:30ean. Antolatzaileek deialdi zabala egin diete herritarrei, hamabostaldiari amaiera emango dion ekitaldian parte hartzeko eskatuaz.

Merkatu Txikirako laguntza eskatu dute

IBARRA Ibaratik Misio Taldeak Merkatu Txikia antolatuta du abenduaren 16tik 23ra. Parrokiako lokaletan egingo da merkatua eta lau misio lurretarako diru laguntzak bilduko dira bertan; Ekuador, Honduras, Eritrea eta Bombay-en martxan dituzten proiektuetarako. Antolatzaileek, dendari eta herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete, «joan zen urtean bezala, aurten ere ahal duzenok nahiz gauzak emanaz edo nahiz diru laguntzarekin, Misio Merkatu Txikia eratu nahi dugun». Informazio gehiagorako bi telefono jarri dituzte: 678 844 539 eta 678 780 775.

Ekintza Planaren inguruko bilera abenduaren 4ean

BERROBI San Lorenzo Udaltalde 21 osatzen duten udalerriek jada osatuta dituzte euren udalerriko Ekintza Planen lehen zirriborroak. Hauek aurkeztu eta guztien artean lehentasunak finkatzeko, Berrobiren kasuan, Udalak bigarren herri bilera bat antolatuta du datorren astearteko, abenduak 4rako, deialdia deitu du, 19.00etan Etxolan hain zuzen ere.



Leaburu-Txaraman atzo bildu ziren «preso eta iheslarien alde» elkarretaratzea egiteko. HITZA

Etxerategen deituta elkarretaratzeak egingo dira gaur, azken ostirala izaki

Politika » Ikaztegiaren gaurtik aurrera 20:30ean elkartuko dira; Villabonan, berri, Zalakaini egingo diote omenaldia etzi.

ASIER IMAZ

Euskal errepresaliatu politikoen senitartekoei, Etxerategen, ohi bezala elkarretaratzeak deitu ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritar, gaur hilabeteko azken ostirala denez. Bi izen aipatuko dituzte hilabeteroko idatzia irakurketan, «bi izen eta bi garai, baina egoera krudel bera».

Villabonan azken ostiral berezia izango da, gaurko egun ez hiltzen Mikel Zalakain euskal preso.

Leaburu-Txaraman ere bai

Leaburuko plazan atzo bildu ziren herritarrek preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea egiteko. Bertan bildutakoek, hilabeteko azken ostiralean beharrez, azken ostegunetan elkartuko direla jakinarazi zuten, 20:00etan, hain zuzen ere. «Aurrerantzean herrian ohitura hausustatu eta sendotzeko asmoa daukagu eta ondorioz, herri-

tarrei hilabeteko azken ostegunetan Leaburuko plazara etor daitezkeen eskatzen diegu, euskal errepresaliatu politikoei gure artean eta bizirik ikusi arte» jarraituko dutela azaldu zuten.

Aldanondo eta Bidart

Etxerategen elkarretaratze bakoitzaren amaieran, iragana, oraina eta etorkizuna izango ditu hizpide. Horretarako Fran Aldanondo eta Jon Bidarten adibideak gogoratuko dituzte, hauek gogoetarekin senide zein preso eta iheslariak, «egoera larri honi aurre egiten urte luzeak» daramatzatela salatuko. «Gogoan dugu gure senide zen Fran Aldanondo nola oraintxe 30 urte, eta azken euskal preso legez,

bere Ondarruko (Bizkaia) etxera ekartzea lortu ahal izan genuen. Baina Amnistiarik gabeko sasi konponbide hartatik bihurtar hil egin ziguten. Gogoan ditugu oraindik orain, 30, 40 urte eta gero, gure senide iheslari politikoei nola oraindik etxera bueltatzeko ez duten izan».

Fran Aldanondoren gogoetaren ondoren, Jon Bidarten egoera ere gogoratu dute, «estatu politikoen errepresio eta bizibaldintza hiltzaileak muturreraino eramateko duten ahalmena, urte luzeetan pairatu» dutela salatuz. «Horixe baino besterik ez digute eskaintzen», gehitu.

Etorkizunari begira, Etxerategen euren «armarik nagusienak, mai-

HAIMAR ALTUNAREN HITZAK MUSIKA DOINUZ

Durangoko Azokari begira Musik Herriak *Elkarrekin: errepresaliatuak eta musikariak* diskoa kaleratu du. Bertan, «12 musika taldek, hamahiru errepresaliatu politikoren hitzekin, poemekin eta gutunekin egindako abestiak» entzun ahal izango dira.

Haimar Altuna lizartzarrek diskoan parte hartu du, bere idatzi bat doinu zantzirik diskoan aurkitzen baita. Musika taldeei dagokienez, euren artean Izoba Pilarren Hilobak talde anoetarra egongo da.

Diskoak 6 euro balio ditu eta bertan, «abestiak hitzak eta informazio asko jasotzearekin batera, errepresioari buruzko zenbait testu ere bildu dira», arduradunek esan dutenaren arabera.

» ELKARRETARATZEAK

Tolosaldea eta Leitzaldea

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Ametzeta. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Leitza. 20:00etan.
- Lizarza. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.
- Leaburu-Txarama. Azken ostegunetan egingo dituzte elkarretaratzeak hemendik aurrera. Atzoko moduan, 20:00etan Leaburuko plazan.

tasuna eta elkartasuna» azpimarratuko du, gaur egingo diren elkarretaratzeetan, «estatu madarikatu eta hiltzaile horiek, burniaren kolpe eta odola isuritzen duten salbuespen neurriak eta amorrua, indarrez mantentzen duten bitartean».

«Bizirik, etxean eta betirako»

Gauzak aldatzeko beharra ikusten dute euskal errepresaliatu politikoen senitartekoei, konpromisoak oinarritzat hartuta. «Ezin diegu utzi inolaz ere horrela segitzen. Badugu nahiko indar, konpromiso eta sinesmen, giza sufrimendua baino besterik sortzen ez duen, inposizio politiko hori baldintzatu eta amaiera emateko».

Azkenik, «lanari ekiteko» deialdia zabalduko dute, senideak «bizirik, etxean eta betirako» izan arte, «aurrera» jarraituko dutela azpimarratuz. «Bil gaitzen auzo auzo, herriz-herriz eta hiriz-hiri. Konpromezu eta aurre egiteko berrondate guzti horiek eta herri presio horiek errealitate bihurtuko du gure nahia. Eta hala jarraitzeko asmoa dugu, herri honen eskubideen alde dena ematen ari diren horiek, gure gizasmerik kuttunenak sekula ez ditugu bakarrik utziko».

Mikel Zalakain omenaldia

Villabonan Etxerategen deitutako elkarretaratzea egingo dute 20:00etan Iru Aldetan. Hala eta guztiz ere, hilabete honetan Mikel Zalakain billabonatarra izango dute gogoan, izan ere, gaur 17 urte Martuteneko espetxean hil zen osasun asistentzia desegokia zela

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

eta. «16 urte beranduago espetxeak hiltzen jarraitzen duela» salatu dute Amasa-Villabonako ezker abertzaleak.

Gaur 20:00etan egingo duten enkartelada ixilari, etzi Belabietako parajea, haren omenez egini-ko monolitoan egingo zaion omenaldia gehituko zaio. Senideak, lagunak eta ezker abertzale osoak antolatu duen ekitaldia da. Omenaldi hau 12:00etan hasiko da eta Belabietara abiatuko dira. Bertan, Mikel Zalakainen omenez *Agurra* dantzatuko dute, eta ondoren, bazkaria egingo dute elkartearen. Txalapartariak eta dantzariak ez dira faltako.



Zalakaini urtero Belabietan egiten diote omenaldia, monolitoan. HITZA

«Eman dira pauso batzuk baina gauzak oso gaizki daude oraindik»

PILAR ESAIN > Mikel Zalakainen alarguna

Villabona » Mikel Zalakain euskal presoak kartzelan hil zela 17urte pasa dira eta etzi egingo diote omenaldia Belabietan.

NEREA URBIZU

Mikel Zalakain preso billabonatarren alarguna da Pilar Esain (Ilairegi, Ultzamako bailara, 1932). Etzi omenaldia egingo diote beste behin, gaixo zegoela kartzelan hil zen presoari. 17 urte igaro dira hil zenetik, eta Pilarrek gertaerak berri ere gogoratu ditu.

Mikel Zalakain bihotzekoak emanda hil zen.

Barruan zegoela, hiru urte horien baitan eman zion, Valentzian zegoela (Herrialde Katalanak). Herriaren egon zen lehenik, gero Carabanchelen, Valentzian, han bertan gaixotu zen, Madrilera berriz, eta Ourense (Galizia). Azken honetan lehen bihotzekoak eman zion, uztailearen 24an. Klinikatik abisatu zidaten eta UVIn oso larri zegoela esan zidaten. Hara joan nintzen mediku lagun batekin eta lagun batzuekin. Ikusi genuen eta han ibili nintzen 8 egun atzera eta aurrera, iskanbilak izan nituen...

Zer nolako iskanbilak?

Euskaraz hitz egiten ez ziguten uzten, UVIn zegoela, gela barruan guardiekin egon zen, eta askotan ez zidaten uzten sartzen. Halako batean kristorena sortu nuen eta haien nagusia etor zedila eskatu nien. Baten bat azaldu zen eta zer gertatzen zen kontatu nion. Guardia zibilek «usted no va a entrar aqui mas» esaten zidaten eta hori kontatu nion zuzendari honi, edo dena delakoari. Berak esan zidan ez kezkatzeko, berak konponduko zuela dena, eta hala izan zen, ez zidaten geroztik trabarik jarri.

Zortzi egun gora eta behera. Eta ondoren?

Bederatzi garren egunean plantara jaitsi zuten. Han ere guardia zibile-

kin egon zen. Hurrengo egunean esan zidaten handik aterako zutela, kartzelara eramango zutela. Guardiek esan zidaten ez zuela kartzelara berarekin joatea merezi, zeldara eraman behar baitzuten, eta ni ezinongo nintzen sartu...

Gau hartan etxera bueltatu zinen.

Bai, trenez. Hurrengo eguerdian deitu zidaten esateko Madrilera eraman zutela: Ourensetik Madrilera. Bero handia egiten zuen egun hartan, abuztua zen, eta isolamenduan sartu zuten. Egoera honen aurrean gose greba egitea erabaki zuten. Semeak gutun bat bidali zuten egoera aldatzeko eta isolamendu gelatik ateratzeko eta azkenean lortu genuen handik egun batzuetara Martutenera hurbiltzea.

Eta Martutenen zer moduz?

Han ez zegoen ondo-ondo. Ourensetik gaixotasunaren nondik norakoak eta informazioa bidali

«Legeak nahi dutenean jarri eta nahi dutenean kendu egiten dituzte politikoak»

zuten hemen tratamendua jarrai zezan. Ez bazitzaizkion ondo joaten ebakuntza egitea ere aukeren artean zegoen. Martutenera eraman nituen informe guztiak, nik ere bainituen. Medikarengana joateko zita zuen eta eguna atzeratu egin zioten beste egun bat emanenez. Ondoren, berriz berdina egin zioten eta abenduaren 3rako eman zioten ordua, aitzakiak jarritz behin eta berriz. Azaroaren 30ean hil zen. Martutenen ez zuten behar bezala tratatu. Aitzakiak ateratzen zituzten, erretzeari utzi behar zio- la esanez, baina hori aitzakia zen: errua beste bati emanez.

Garai horretan instituzioen baten babesik-edo eman zizun?

Ezer ere ez. Garai horretan Senideak zegoen eta bidaia ordaintzeko eta Ourenseko egonaldia or-

daintzeko diru laguntza eman zidaten, hiletako gastuak... Baina bestela ez gobernurik eta ezer gehiago. Hiletara jende asko etorri zen leku askotatik: lehenago jendea gehiago mugitzen zen gauza hauetarako, nigandik hasita. Orain utzia dago, beldur gehiago dago... Momentu horretan oso pozik gelditu nintzen. Hortik aurrera nire bizitza, ahal dudan bezala aurrera egin dut.

Urtero egiten zaio omenaldia.

Bai, urtero, aurten 17. urtea izango da. Monolito bat dago mendian eta han elkartzengara. Lehen biurteetan ez zen bazkaririk egiten. Ondoren elkartearen bazkaria egiten dugu, baina lehenik mendira joaten gara. Giro polita egoten da, eta jende asko elkartzengara. Herriari berataz jendea gogoratzen da.

Nola ikusten duzu gaixo dauden presoekin egoera gaur egun?

92. artikulua eskatzen dute baina ez dute aplikatzen, damutzeko eskatzen dute eta barkamena eskatzen... Lehenago ez zen hori gertatzen, eta 3. gradura pasatzen zituzten. Orain damutzeko... Legeak haien interesera moldatzen dituzte, nik uste okerrago dago lehen baino. Lortu dira gauza batzuk baina gauzak oso gaizki daude. Presoen egoera orduan ez zen oso ederra, baina gaur egun nik uste okerrago dago, lotsagarria da. Legeak nahi dutenean jarri eta nahi dutenean kendu egiten dituzte... De Juana dator kit burura: bi artikulua idazteagatik berriz kartzelera, ez gara libre nahi duguna esateko ere. Senideakeko lehendakaria nintzenean Euskal Herrira ekartzeko eskatzen genuen, eta gaur, etxera.

Zer egin daiteke?

Ezin da etsi, ezta pentsatu ere. Ez badira eseritzen hitz egitera, ez dago zer egeririk. Azkenean okerrak hemengoak dira, beti erdi gezurretan baitabilta. Horrela ez goaz inora. Presoak etxera eta behar den bezala ekarri behar ditugu.

Eskolako Agenda 21 proiektua 12 ikastetxe ari dira lantzen

Hezkuntza » Gaurtik hasita ikastetxeen eta Udaletxeen arteko konpromezuen sinadura ekitaldia egingo dute.

ERREDAKZIOA

Eskolako Agenda 21 proiektua Tolosaldean aplikatzen ari dira. Guraso, ikasle, irakasle eta ikastetxe-ko gainontzeko langileek parte hartzen dute ikastetxeen eta bere inguruan jasangarritasunaren alde lan egiteko.

Sinadura Ekitaldiak

Ikastetxe berriek Eskolako Agenda 21aren barruan ematen duten lehenengo pausoen artean, ikastetxe eta Udaletxearen arteko elkarlanerako konpromezuen sinadura ekitaldia dago.

Gaur Zizurkilgo Jesusen bihotzaren 10:00etan izango da. Bidegoiango Txinkortak, berriz, 15:00etan, udaletxean sinatuko du. Abenduaren 3an Ibarako Uzturperen txanda izango da, udaletxean ere, eta 10:00etan.

Asteartean Doctor Fleming eta Jesusen Bihotza Amasa-Villabonako ikastetxeek sinatuko dute 10:00etan udaletxean. Ikastetxetako 11:00etan ikastetxeen eta Berrobikoek 12:00etan udaletxean.

Asteazkenean Anoetako Ikastolak 09:30ean udaletxean; Iruako ikastolak 10:30ean udaletxean; bukatzeko, Berastegiokoak 11:30ean

ikastetxeen eta Adunan 15:00etan ikastetxeen ere.

Proiektuaren helburu orokorra, bizi kalitatea eta ingurumen kalitatearen arteko oreka lortzea da: horretarako, ikastetxearen bitartez herriko arazoak identifikatu, aztertu eta alternatibak proposatzeko egitura bat sortzen da, ikasleen inplikazioan oinarrituz.

Ikasurte honetan Tolosaldeko 12 herritako ikastetxeak eskolako agenda 21 proiektua ari dira lantzen: Aduna, Anoeta, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Ibarra, Ikastegieta, Irura, Lizartza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil. Denera 20 ikastetxe dira eta gehienak LHko ikasleak badauzkate ere, badira gazteekin lanean ari direnak ere.

Ikastetxe hauek guztiak ikasturte hasieratik daramate jo eta ke lanean proiektua aurrera eraman ahal izateko. Tarteka, ikastetxeetako Eskolako Agenda 21aren arduradunak Tolosan Koordinazio Bileratan biltzen dira Ceida eta Zuloaga Txiki Ingurumen eskolaren laguntzaz, proiektuaren inguruan sortzen diren gorabeherak argitu eta emandako urratsak amankomunean ipintzeko.

Guztietan ekitaldi berdintsuak

Gutxi, gorabeherako egitaraua hau izango da guztietan: sarrera eta programaren aurkezpena Zuloaga Txiki Ingurumen eskolaren eskutik; ikasleen ekintza, konpromezuen irakurketa, zuzendariaren hitzak eta alkateak azkenik.

Zurea da hitza

info



Begiekin engainatzen hasi zaizkigu

VILLABONA » Atzo Villabonako kale nagusitik pasa nintzen. Zer ikusi eta eguberrietako argiak denda pare batean piztuta! Auskalo noiztik pizten dituzten, baina lotsagarria iruditu zait. Zein da honen funtzioa, apaintzearena? Zer uste dute, gehiago salduko dutela horrela? Tolosan argiak kalean jarri zituztela ikusi nuenean, bakarrik Tolosan gertatzen zela uste nuen, baina ikusten ari naizenez, oso zabal dago. Irakurleok, hilabete bat falta da Kontsumismoaren garaian oraindik sartzeko, eta dagoeneko begiekin engainatzen hasi zaizkigu. Zaindu poltsikoak... MIKEL ETXEBERRIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Titirijai: Asturiaseko Kamante teatro-ren *Que viene el lobo* Kultur Etxean 18:00etan; Frantziako Theatre du Lutin-en *Arrain arrantzalea* Gorosabelen 18:00etan; eta Gaztela-Leongo La Chana-ren *Entre diluvios* Bonberean 22:30ean.

Deialdiak

■ **Ibarra.** Kultura elkartrukearen hamabostaldia-aren amaiera ekitaldia Sendi Ekintza Elkartean 19:30ean.
■ **Tolosa.** Etorkinentzako afaria Uzturre sagardotegian abenduaren 5ean, Nazioarteko Euskararen Egunaren inguruan. Txartelak salgai 22 eurotan Ikatzeta eta Triangulo tabernetan eta Galtzaundin.

Mendia

■ **Tolosa.** Axier Izagirrerren *Urtebete Himalayan* proiektzioa Oargin 19:00etan, ondoren omenaldia Axier Izagirrerri eta afaria, Mendi Hamabostaldia-aren barruan.

Ikastaroak

■ **Ikastegieta.** Ardo dastaketa ikastaroa, Herrigintza elkartek antolatuta, 19:00etan.

Irteerak

■ **Villabona.** Jubilatutako elkarrekin Harora (Errioxa) irteera antolatuta du abenduaren 12rako: hamaiketakoa Agurainen, Jimeleoren likortegia bisitatu,... Izen-ematea, jubilatutako elkarrekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarozen zuzen, 9. 943 675118.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Nazioarteko 25. Titirijai jaialdia dela-eta egunotan Tolosako hainbat saltokietako erakuslehoetan askotariko txotxongiloak jarri dituzte apaingarri modura; herriatik bueltatzea egiteak merezi du.

Erakuslehoetara ere bisita



ERREDAKZIOA

Euren bizitza besteek gidatzen dute, ez dira euren mugimenduen jabe. Baina agian gaez jaiki eta euren harietatik tira eginez heldu dira Tolosako hainbat erakuslehoen barrura. Agian gustuko dute tolosarren begiradapean egotea. Agian libreago sentituko dira bertan. Arrazoiak arrazoi egun hauetan txotxongilo ezberdinek apaintzen dituzte Tolosako hainbat saltokiko erakuslehoak. Ikusgarriak, benetan.



Tolosako saltoki ugari txotxongiloak jarri dituzte euren erakuslehoetan, Titirijai jaialdia-aren harira. I.T./NL

A Agurrak



Urte askoan!

Aratz (Amezketeta). Gaur 4 urte. Zorionak Aiako familiarren partetik eta muxu bat Garaziri.



Urte askoan!

Aratz Alkain. Gaur 4 urte. Zorionak etxekoaren partetik, bereziki Garazi eta osaba Josebak.



Urte askoan! Andresa eta Joxe (Aia)

Zorionak, 68 urte ama eta 39 urte elkarrekin, etxekoaren partetik.

txokoa

2 sarrera pare

zozketatuko ditugu deitu eta eskuratu

Abenduak 3 astelehena
16:30etan
Tolosako Beotibar pilotalekuan



aspepelota.com

Arruti - Merino I
■■■■■
EUGI - NALDA III
OLAZABAL - GOÑI III
■■■■■
Larralde - Arizmendi
Cabrerizo - Urberuaga